

Euskara desagertzeko arriskuan?

Joan den otsailaren 21ean UNESCOk munduko hizkuntzen egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen, gaiaren inguruan azkeneko urteetan egin den lanik osatuenetakoa. Munduko hizkuntza dibertsitatearen argazki bat da, txostena eta hizkuntzen egoera aztertzeaz gainera, momentu honetan munduan hitz egiten diren hizkuntzen erdiak ez desagertzeko bultzatu beharreko ekintzak eta gomendioak biltzen ditu.

Txostenaren atal bat Europari dagokio eta bertan, Europa iparraldeko hainbat hizkuntzarekin batera, euskara, galegoa, asturianoa, aragoera eta bereziki Leonésa azaltzen dira "desagertzeko arriskuan" dauden hizkuntzen artean. Felix Martí kataluniarra da UNESCOren Hizkuntza Batzordeko burua eta bere ustez "Europar agintzen duten hizkuntzen gaineko irizpidea osos zaharkitua dago. Frantzia da munduan sentsibiltate eskasenetakoa agertzen duen estatua". Badaki, bai, eus-



Hizkuntzaren transmisioan dago etorkizuna.

nen gainbeherari konponbide azkar eta egokirik eman ezean, itzulbiderik bako bidaia izan daiteke euskararena iparraldean.

Espainiako estatua ere ez da Felix Martíren iritziz hizkuntza dibertsitatea mantentzeko orduan jarraitu beharreko eredia. "Espainia hizkuntzei dagokionez transiziorik izan ez duen estatua da. Diktaduran sortu ziren ideia berekin bizi da. Planteamendu zaharkitua dira horiek".

Aspaldion hitzetik hortzera dabilen "globalizazio" hitzak bere lekua egin du hizkuntzei dagokien alorrean ere.

Globalizazioa, ulertzen den moduaren arabera, onuragarria edo kaltegarria izan daiteke hizkuntzentzat baina beste gai batzutan daraman bidea hartuz gero, ez dirudi hizkuntza txikiaren pizgarri izango denik. Dena den, Felix Martí ez da hain

"elebakarra pertsona arriskutsua da gizateriaren geroari begira"

ezkorra. "orain artean munduko biztanlearen zati handi batek uste zuen elebakarra izatea zela per-

tsona batentzako aukera ideala. Egun, munduko biztanlearen %40, gutxienez, elebiduna da eta lortu behar dena, pertsona elebakartasunaren murrizketatik askatzea da. Pertsona elebakarra gizateriaren geroari begira, mundua zuloz bakar batetik ikusteko gai baino ez delako, bere hizkuntzatik, alegia. Elkarbizitzeko identitate eta sentsibiltate zabalak izan behar diren munduan, elebakarrak arriskutsuak dira".

Globalizazioak globalizazio eta elebakarrak elebakar, UNESCOren txostenak dioenez benetan arriskuan dauden hizkuntzak ez dira ez frantsesa eta ezta gaztelania ere, euskara bai ordea. Europako herrialde batzuetan hizkuntzengandako zelan halango errespetua badago ere, badiurdi Europar Batasunak bestelako lehentasunak dituela momentuz. Euskaldunok ere geureak ezarri beharko genituzke.

"Frantzia da munduan sentsibiltate eskasenetakoa agertzen duen estatua"

karak frantziako estatua-
ren liberté, égalité, fraternitéaren berri. Iparraldean euskarak ez dauka inongo ofizialtasunik eta hiztu-

PICASSOREN ZEZENTZARRA

Aurreko alean jakinarazi genizuen moduan, Gerediaga Elkarte eta Kriskitin Dantza Taldeagaz iaz hasitako elkarlanaren bidetik, 1937ko bonbaketaren inguruko ekitaldiak aurrera aterako ditugu aurten ere. Bi izango dira ekitaldiok. Martxoaren 30ean arratsaldeko 19:00etan San Agustin Kultur Gunean bideo emanaldia izango dugu, batetik. Bestetik, 31n bertan eguerdiko 12:00etan, bonbaketaren testigu sufritu gertatu zen Andra Mari elizpean gogoratze ekitaldia burutuko da. Hona hemen bi proposamenon gaineko zehaztasun batzuk.

FRANKISMOKOUME GALDUAK

Kataluinako TV3 kateko Montserrat Armengou eta Ricard Belis kazetariak buruturiko ikerketa lanetik sortu zen dokumentalaren izenburua da "Los niños perdidos del franquismo". ETB2 kateko Mundo.hoy saioan berau ikusteko aukera eskeini zitzaigun baina, gutako askok seguraski, ez zuen bere berririk edo ikusteko modurik izan.

Durangoko Bonbaketaren inguruko ekitaldien helburuetako bat memoria historikoa gureganatzea da. Horregatik, urtero urtero, gerra zibila eta gerrareostearekin zerikusia duten gaiak landuko nahi ditugu. Iaz, Durangoko bonbaketa bera gogoratu genuen. Aurtengo urterako dokumental hau eskeintzea erabaki dugu, oraindik ezaugarri gertatuko delakoan.

Dokumentalaren kontakizuna Estellako fray Gumersindoren eguneroko

personalean oinarritzen da. Fraile honek urteak egin zituen Zaragozako kartzelan hiltzera zigortutako presoekin lanean. Dokumentala bera bi ataletan banatuta dago.

Lehenengoan gerra-osteko hasikerako urteetan errepresioa zelan bereziki emakumeei zuzendurikoa

labengandik zelan bereizi zituzten jakingo dugu. Ama hauetako askok ez dituzte semealabak berriro ikusi, kontzentrazio-gune antzeko Auxilio Social delakoetara eroan zizkietelako haurrok. Haien berririk eman barik bueltatu ziren asko herrira eta beste hainbat legez kanpo adoptatu zituzten, gura-

tuan hartuta, ematea erabaki dugu, jakingarri intereskoa delakoan.

ANDRA MARI ZAURITUA

Dakizuen moduan Durangoko herriaren erdigunea izan zen 37ko bonbaketaren helburu eta kaltetu nagusia eta herriaren bihotzean

Andra Mari eliza eraikin sufrituene-tako bat. Horregatik aukeratu genuen iaz Andra Mari elizpea Gogoratze Ekitaldia burutzeko eta hantxe egingo dugu aurten ere. Lore eskeintza egin eta Aurrezkua dantzatuko da egun hartan hildakoen aldeko ekitaldi xume baina sentituan. Besteak beste, Xabier Amurizak bonbaketaren nondik norakoak kontatuz jarritako

bertsoentzat beren-beregi sortu du doinu berria aurten Ander Erzillak.

Gerturatzen zaretenok, beraz, hildakoen oroimena indartu eta Ander eta Xabierren emanalditxoa gozatzeko aukera izango duzue.



izan zen erakusten da. Emakumeok errepublikarrak, errepublikarren emazteak edo alabak izateagatik eraman zituzten preso giza-baldintzarik txarretan, haurdun euretako asko.

Bigarren atalean, ama presoak euren semea-

soen sineskeretatik oso bestelako moduan hezitzeko.

Pena izan da dokumentala emateko baimena berandu eskuratu izana, gaztelaz baitator eta ez baitugu geuk bikoiztu edo azpigitulatzeko astirik izan. Hala ere eta gaiaren interesa kon-

Martiko hilak hogeta hamaika
Egunaren zabaleran
Durangotarrok itxartu ginan
Kanpaien dei zapalberan.
Mamutzar batzuk agertu ziran
Elorrion zehar hegan
Goiko zeruak jarri ginduzan
Inpernuaren sarreran.

Kurutziagak jasango eban
Suzko danbarrada lehenen
Ezker-eskuma han zan triskantza
Geltokiraino ondoren.
Altzamentua zer izango zan
Laster jakin gendun hemen
Hirurehun hilda, herririk erdi
Txikituta itxi eben.

Jesuitetan goizeko mezan
Junartzeko gengozala
Berrogetamar kristau hil ginan
Mezaduna buru zala.
Bardin komentu ta Andra Mari,
Aitzen emonez bezala
Jainkoa euren alde ez bazan
Danak erreko ebezala.



Barrenkale ta Goenkaletik
Geltoki apurturaino
Eguerdi ostein barriro ez zan
Hilak eta hautsa baino.
Frontoia zabor, Ezkurdi ketan
Suak "gero arte!" dino
Halango beste hiru pasada
Falta genduzan ondino.

Apirilaren bat eta bian
Junkersak eta Heinkelak
Barriz gugana hustu ebezan
Euren bonbazko gibelak.
Kanposantura hilak lepoan
Jo gendun bizi goibelak
Geu be zulora etzun ginduzan
Azken amasa krudelak.

Apirilaren lauan barriro
Krimenez nahikotu bako
Bonba-lapiko hegalarien
Saldarik ez zan faltako.
Hospitala be hauts bihurtua
Hondamen zelai Landako
Eskerrak ia danok herritik
Aldeta gengozalako.

Frankok agindu, Molak birrindu
Hitlerrentzako biak on
Tronperri maite honi suberte
Mortala etorri jakon.
Oi, Picassoren Zezentzar hori
Gaur be ondino nun hagon!
Gernikan fama zelan gailurto
Ikasi heuan Durangon.

KARRIKA ANTZERKI TALDEAREN AZKEN LANA "PROSTIBULOA"



Karrika
Antzerko
Taldeak lau urte-
tako ibilbide egin
dituen honetan,
Berbaro
Elkartea,
Kurutziaga
Ikastola eta Frai



Martxoaren 8an "Prostibuloa" estrenatu zuen Karrika Antzerki Taldeak, bide luze baten azkeneko ikuskizuna da lan hau. Durangoko Institutuko areto nagusian izan zen ikusgai obrak, 13 aktoreen lana agerian utzi zuen. Tekniko biren laguntzaz antzerki taldeko kideak obrak duen lan guztia hartu duten bere gain: istorioa, dekoratuak, jantziak, eta abar. Ordu eta erdiño iraupena duen saioa eskeini zuten Karrikakoek eta bertan sei prostituten gorabeherak kaleratu zituzten.

Juan Zumarraga Institutua batera aritu dira esparru honetan, sei ikuskizun kaleratu dituzte. Sei ikuskizun hauek kaleratu dituzten gazteak 15 eta 20 urte bitartekoak izan dira eta 100 bat gazte igaroko ziren honezkero gure proiektutik. Gaur egun 31 gazte dagoz antzerki taldean lan egiten. Gure herrian erreferentzi izan beharko lukeen proiektua da hau, jende hain ezberdinen elkarlana eredu delako, eta uste dugu Euskal Herrian ere erreferente dela antzerki esparruan gazteekin eus-

karaz lan egiten duten proiektuak ez daudelako martxan, beraz aurrerantzean ere mimatu behar dugun proiektua da hau.



Datozenak

- Martxoaren 18tik apirilaren 7ra
Arantza Arinen
"Nikaraguako argazkiak",
BERBARO tabernan.
- Martxoak 31, eguerdian, 1937ko
bonbaketaren
gogoratze ekitaldia
Andra Mariko elizpean.
- Apirilaren 11an, osteguna
20:30etan, **Igelaren Banda**
(*Bixente Martinez, Txarli de
Pablo, Iñigo Egia*)
BERBARO tabernan,
KULTUR ERROTAREN barruan.
- Apirilaren 18an hasita **sukaldiratza
begetarianoari buruzko
ikastaroa**. Gure eguneroko otorduak
aberasteko eta barazkiak
bakarrik janda elikadura ez
dala pobretzen eraskustea
izango dau helburu. Irakaslea
Iñaki Uribe izango da. Informazioa:
946201918.
- Apirilaren 25an, osteguna,
20:30etan, **Txuma Murugarren**
BERBARO tabernan,
KULTUR ERROTAREN barruan.

ARANTZA

Martxoko arantza
Bilbao Bizkaia



Kutxarentzako da. Erakunde honen Durangoko bulegoetan euskarak ez dauka tratamendu egokirik. Zenbat kartel eta ohar ikusi dozuez euskaraz? Zenbatu eta neurtu gure hizkuntzaren presentzia. Ilaran itxaron behar dozue-nerako joko entretenigarria da.

ARANTZA


Aste Santua datorrenez Durangoko ekintza kultural garrantzitsuetariko bateri buruzko aipamena egingo dogu: *Durangoko Pasiñue*. Jesukristoren bizitzaren komediak erdera hutsean antzeztan dira urtero-urtero. Ez dogu Jainkoaren sufrimendua gehiago areagotu gura, baina martxoko Berbarotarraren bigarren arantza Pasiñuek daroa



Lau berbatan

● Eskerrik asko Liria !

Berbaro Elkartek Pinondo Etxean daukan bulegoan egon da praktika lanetan Liria Gonzalez abadiñarra. Berak antolatatu dauz urritik martxoraino Berbaro Tabernan ikusi izan dozuezan argazki erakusketak eta beste hainbat gauza: irteerak, kartelak, txartelak, autobusak, ... Lan fina egin dau gure lankideak eta honen bitartez eskerrak emon gura dauzogu.



● Ongi etorri Maite!



Agurraren ostean ongi etorria beste lankide bateri, bera Maite Urtiaga da, hau ere abadiñarra. Martxotik maiatza bitartean praktika lanetan izango dogu gure inguruan. Arratsaldetan egongo da Berbaroko bulegoan eta bertan izango dozue. Adibidez, Anbotoko etxean jaso gura dozuela..., deitu eta Maitek hartuko dauz zuen datuak, zerrendan sartu eta aldizkaria eskuartean izango dozue barikuro. Gure artean ondo egotea opa dautsugu Maiteri.

● Berbaroko Zuzendaritza Batzordea

Argazkian agertzen dan talde honek osatzen dau Berbaro Elkarteko Zuzendaritza Batzordea. Batzarkideak dira: Ireide Arriolabengoa, Olatz Elortza (lehendakariordea), Amaia Zarrabeitia, Estibaliz Zurikarai (lehendakaria), Gorka Barruetaña, Maite Agirre eta Unai Iturriaga. Urtebeteko lanaldia betetako dauzen sasoi honetan animoso jarraitzen dabe Berbaro Elkartearen eguneroko kontuak aztertzen eta zuzentzen.

